


Zarautz

**1.Kiroldegia**
- **Igeriketa**
- **Eskubaloia**

**2-3.Asti**
- **Futbola**
- **Errugbia**

**4.Golfeko zelaia**
- **Golfa**
- **Tenisa**
- **Padel**

**5.Volleyballeko zelaia**
- **Volleyball**
- **Txaparrotan**

**6.Surfa**

**7.Antoniano ikastetxea**
- **Saskibaloia**



Zarautz

**Aurreko guztia laburbilduz, Zarautzen kirol ezberdinak egiteko toki ugari daude, hortaz animatu zaitez leku hauetara hurbiltzera eta kirola egitera, beti ere EUSKARAZ! Hortaz hartu ezazu zegapotoa eta saltseatu QR kodeetan!**



# KIROLEAN ERE EUSKARAZ! DOING SPORT IN BASQUE!



**Zarautz Gipuzkoako kostaldearen erdialdeko udalerri bat da eta Urola Kosta eskualdeko hiriburua da. Zarauzko jarduera nagusietako bat Turismoa da. Hortaz gida turistiko honek erakusten duena da, Zarautzen kirola egiteko txoko polit eta aproposenak. Animatu zaitezte leku hauek ikusi eta bertan kirola egitera, beti ere Euskaraz!**

## 6

Zarauzko kirolik ezagunena surfa da, Zarauzko olatuengatik gehienbat. Udaran kanpotar pila bat etortzen dira surf egitera, gehienak ingelesak eta frantsesak. Apirilean surfeko txapelketa bat egoten da, Pro Zarautz eta jende mordo etortzen da kanpotik ikustera eta parte hartzera. Surfa egiten ikasteko udaran hainbat eskola daude, besteak beste: Pukas eta Moor.



Pukas surf eskola




Moor surf eskola

## 7

Antoniano ikastetxe izateaz gain, saskibaloiko entrenamendu eta partida gehienak egiten diren lekua da. Zarautzeko saskibaloi taldea ZAST izena du.



2014ko Kadete nesken taldea

## 2-3

Bigarrenik, Astira joango gara non bertan futbolean ibiltzeko bi zelai dauden, bat artifiziala eta bestea naturala eta, errugbian ibiltzeko beste zelai natural bat.
Hortaz aparte, kirolarientzat bi aldagela handi daude, handiena 2017 eraikia, gimnasio eta guzti. Bestalde, ondoan merendero bat dago umeentzat sokazko parke eta guzti.

Zarautzeko futbol zelaian futboleko partida asko egiten dira. Zarautzeko nesken eta mutilen taldeak ZARAUTZ KE izena dute.

Jende gutxiago egon arren, Zarauzko errugbi talde ere badago.

## 4

Orain Zarauzko golfa, orain dela 3 urte olatuak golfeko zelaia izorratu zuen. Eta berriro eraiki behar izan zuten, horrek urte bat iraun zuen. Golfean 9 zulo daude. Bertan padel eta tennis ere egiten dira.



## 5

Ondoren, Zarautzeko desierto txikira joango gara. Leku honetan, volleyballera ibiltzeko bi sare daude eta gehienbat udaran ibiltzen da jendea jolasten. Oro har, udaran eskubaloiko txapelketa bat egiten dute Txaparrotan izenekoa eta bertan 8 pertsonako taldeak partidak irabazten saiatzen dira kopa eta kamiseta bat irabazteko. Zarauzko volleyballeko taldea ere badago denak neskenak eta Lizardiko gimasioan entrenatzen dute.





## 1

Hasteko, Zarauzko kiroldegira joango gara. 2007an bukatu zuten eraikitzeaz eta egunero hainbat herritar joaten dira hara kirola egitera. Bertan hainbat kirol egin daitezke baina hemen 2 sakonduko ditugu: Igeriketa eta eskubaloia. Gainera, 2017an goiko pisuan liburutegi bat antolatu dute jende gaztearentzat.



Herri eder honetako kiroldegian 3 igeri-leku egoteaz aparte (bi hotz handi eta bero txiki bat), 18 urte gorakoentzat sauna ere badago. Umeentzat igeri egiten ikasteko hainbat maila daude: Dortoka, karramarro, olagarro, igela, marrazo eta kluba.
Klubak Zarauzko Balea igeriketa izena du eta bertan adin ezberdineko jendea lehiatzera joaten da.



Polideportiboan eskubaloian ibiltzeko kantxa ere badago harmaila eta guzti. Eta bertan, larunbat arratsaldetan izugarrizko giroa egoten da Amenabarrek (mutilen taldeak) eta Aialak (nesken taldeak) jolasten dutenean.



Aiala taldea




Amenabar taldea